

Galdera

Nola eman euskaraz *codocencia*? 'kodozentzia', 'koirakaskuntza', 'irakaskuntzakidetza'...?

Erantzuna

talde-irakaskuntza, **irakaskuntza partekatua** edo **koirakaskuntza**

1/ Ez da terminologia-arazo makala. Zalantzarik gabe, ahalegina egin behar dugu terminologia egokia sortzeko, kontzeptu berrietara egokitzeko, gure inguruko hizkuntzetan bezalaxe. Lehenik eta behin, aitortu behar dugu ez dugula termino normalizaturik geure gomendioa emateko. Hezkuntza-erakundeetan denetarik erabiltzen da (**koirakaskuntza**, **koirakasletza**, **irakaskidetza**, **kodozentzia**...), eta Interneten ere ez da nabarmentzen joera berezirik. Edozein kasutan ere, *koirakaskuntza* agertzen denean, ondoren beti izaten du esangura argitzeko perifrasi bat («**bi irakasle gela berean**», «**bi irakasle gelan**»...). Gauza bera *kodozentzia* aurkitzen dugunean («**irakaskuntza partekatua**», «**irakaskuntza konpartitua**»...).

2/ *Euskara Batuaren Eskuliburu*aren artikulua batean dioen bezala:

«Hitz berriak sortzean, erdarazko *co-* aurrizkia daramaten hitz asko (es: '*cooficial, corresponsabilidad...*'; fr: '*co-officiel, co(-)responsabilité...*') euskaraz *-kide* bidez eratu dira azken urteotan, eta egoki asmatuak dira, baina komeni da jakitea Euskaltzaindiak ez duela arautu atzizki honen esangura eta hedadura. Hala ere, erabilerak onartu eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* jasoak dira, esaterako, hauek: bizikidetasun, bizikidetza, lankidetza, jabekidetasun, erantzukidetasun...; baina, horien ondoan, hor daude koentzima, koofizial, korrelazio eta kosinu ere.»

3/ Berdin, Euskaltzaindian, "[Maileguak: gaztelaniazko eta frantsesezko *co-* aurrizkia \(*cooficial, co-officiel*\) euskaraz](#)", *Jagonet galde-erantzunak*.

4/ Gure inguruko hizkuntzetan, berriz, termino hauek ditugu:

en [co-teaching](#) or **team teaching**.
fr [co-intervention](#), ou encore co-enseignement
es [coenseñanza](#)

Gure iritzian, terminologia-arazoa argitzen hasteko bidea erakusten digute, eta bat datoz, goian azaldu bezala, teknizismoa esplikatzeke erabili ohi diren perifrasiarekin, euskaraz ere zentzu teknikoan eta terminologikoan erabil daitezke eta: *irakaskuntza partekatua*, *irakaskuntza konpartitua*, *bi irakasle gela berean*, *bi irakasle gelan*... Bestalde, [European Education Thesaurus](#) (Vocabulary server) webgunean beste baliokide batzuk aurkitu ditugu hainbat hizkuntzetan. Antza denez, alemanieraz eta italieraz ingelesezko termino gordina erabiltzeko joera da nagusi, baina besteetan egokitu egin dute, eta euskaraz ere ildo horretatik jo dezakegula begitantzen zaigu.

Katalanez	ensenyament en equip
Alemanieraz	Team Teaching
Gaztelaniaz	enseñanza en equipo
Euskaraz	talde irakaskuntza
Frantsesez	enseignement en équipe
Galegoz	ensino en equipo
Portuguesez	Ensino em equipa
Italieraz	team teaching

5/ Horrenbestez, uste dugu **talde-irakaskuntza** eta **irakaskuntza partekatua** termino egokiak direla orokorrean erabiltzeko era ulergarriago batean, eta **koirakaskuntza** teknizismo gisa erabil daitekeela testuinguru teknikoagoetan. Zoritxarrez, askotan, asmo handiko terminoak aukeratzean, gauzak erraztu beharrean, ilundu egiten ditugu. Gure aburuz, beti jo behar da ulergarritasuna hobetze aldera.

6/ Edozein kasutan ere, berriz esan behar dugu ez dagoela gure esku horrelako auziak ebaztea. Geure proposamen xumeak arrakasta badu eta erabiltzaileek baliatzen badute, aurrera egingo du. Baina, azken batean, erabilerak erabakiko du zein termino gailenduko den estandarizazioaren bide honetan. Hedabideek, erakundeek eta hizkuntza-komunitatean eragina duten gainerako aktoreek dute azken hitza.

7/ Hona hemen, goian aipatutakoez gain, erabili ditugun beste iturri batzuk:

Koirakaskuntza - [emaitzak](#) (Google)

hik hasi J. Iñaki Etxezarreta – koirakaskuntza, koirakasletza.

kaiera.eus ([Googleren katxean](#)) - koirakaskuntza (**bi irakasle gela berean**).

[Koldo Mitxelena BHI Gasteiz](#) (Google site) - koirakaskuntza: **bi irakasle gelan**.

[Hezkuntza Ponentzia Txostena](#) 2022/03/24 (Legebiltzarra) – koirakaskuntza praktikatu

Kodozentzia - [emaitzak](#) (Google)

[Gizapedia](#) - ingelesez, *co-teaching*, **team teaching**.

[Gobernu-bilera](#) 2022/06/21 ([PDF](#) formatuan ere bai) - **Irakaskuntza partekatua** (kodozentzia).

[Donostiako Berritzegunea](#) (PowerPoint deskarga) - “Kodozentzia” edo **irakaskuntza konpartitua**.